



Eibarren, 2010eko ekainaren 29an

## Ustekabe Elgetako jaietan

Aurten hirugarrenez Ustekabe Elgetako kaleetan arituko da. 2008an estreinakoz eta iaz ere jaiak alaitu zituen fanfarrea izan ostean iazkoa errepikatzen gatz aurten ere, ostegunean eta larunbatean.

**Ostegunean arratsalde** arituko gara, 18.30etatik 21.30etara. Besteak beste, 19,30etan Salbadorretik herriko plazara izango den mozorroko jeitsiera alaituko du fanfarre eibartarrak. Plazara iritsitakoan alkate txikixari emango zaio agintea eta brindisa egingo da jaiari hasiera emateko. Ondoren buruhaundiak ere izango dira Elgetan.

**Larunbatean egun** osoz izango da fanfarre armagina Elgetan. Goizeko 10.30etarako iritsiko dira. 11,15etan diana edo "esna deiza" dago deituta herriko kaleetan Ustekabe txarangarekin, eta jarraian koadrilek hamaiketako egingo dute. Elgetako X. Asto karrera izango da jarraian, eta herri bazkarirako gosea egiteko harrijasotzaileak ere izango dira. Arratsaldea, Ustekabe fanfarreak bigantxak animatuko ditu eta ondoren kalejira egingo du herriko kaleetan.

### Lehendik ere, Eibarko musikariak Elgetan

Hirugarren urtea da jarraian Ustekabe fanfarreak Elgetako jaietan parte hartzen duela, baina antzina ere bazegoen musikari eibartarrak Elgetan jotzeko ohitura. Eibar eta Bergarako Bandek askotan jo izan dute Elgetan, Ahotsak.com webgunean nagusi batzuek kontatzen duten arabera, eta Eibarko Banda utzi eta "La Lira" taldea osatu zuten musikarien bisita ere izan omen zuten Elgetan hainbat urtez. Talde hau "Los Rebeldes" izenarekin ezagutu zuten, izan ere Jazinto Zuluaga zuzendariarekin 1949an izandako desadostasun bat zela medio utzi zuten Musika Banda, talde hau sortuz. 11 izan ziren hasieran, eta 19 izatera iritsi ziren.

### X. Danborradarekin, udako egutegia

Sanjuanetan ireki zuen Ustekabek udako egutegia, urtero lez. **Sanjuanetako umeen danborrada da hasieratik urtero Ustekabek egin izan duen aktuazio bakarra, aurten bere X. danborrada eginez. Gudan erakutsi duten konfidantza bihotzez eskertu nahi diegu Eibarko Danborradaren antolatzaileei eta Eibarko Udalari.**

Datorren astean, San Fermin egunez, Ustekabe fanfarreak **Zaldibarren** joko du, arratsaldeko 19,00etatik aurrera, 2 ordu t'erdiz. **Gasteizko jaietan** ere ez da faltako Ustekabe, 2004tik urtero egin izan duen aktuazioa. Horrekin batera, **X. urteurrena** antolatzen lanetan dabil Ustekabe fanfarrea. Urteurrena Sanandresen aurretik izango da.